



Antxiñako fotografixia



Pelikula denporako plazia

Frantzesen pelikulia dala eta ez tala, bapo harrotu dira Oñatiko hautsok. Mondraguen egitekotan ziran, baiña han barik gure herrixan filmau dittue azkenengo gerrateko hainbat pasadizo agertu gura dauen ikuskizun honen zati inportante batzuk. **José Luis de Vilallonga** idazliaren *Fiesta* izeneko nobelan oiñarrittuta ei dago gioia; nobeliorri zintzo jarraiketean baxaue, ezto uste historixa aldetik argittasun haundirik emungo doskunik pelikula honek. Izan be, Vilallongaren liburuak dakarrenak eta gerra denboran pasau zanak ezta koi antz larregi. Zorritzarrez, eskritore eta zineruak sarritan egiten dittue holakuak: jentiak jatorrizko historixia bihar dan moduan ezauketako erarik euki eztauenian, eurak bertsino libriak edo zihero okerrekuak moldaiten hasten dira. Kasu honetan be beste hainbeste gertatuko dala pentsaiten dot.

Kuestiñua da, filme hori modutu ahal izateko. Oñatiko hainbat bazter eta etxek itxuraz aldatu dauela. Plaziari be ikutu bat baiño gehixago egin xako, garai haretako tankeria emun

guran edo. Horregatik aukeratu dogu gerra aurreko fotografixa hau; sasue haretan gure plaza nagusixa zelakua zan ikusi daizuen: **Elortza Jeneralaren** itturixia orain kioskua daguen lekuan agiri da; itturixaren ezker-eskumatan harrizko banku luze eta ederrak; eskuman ikusten dan txabola moduko hori ezta barkilleruarena, orduko kumun-lekua baiño; akazia batzuk oraintxe letxe dagoz gutxi gora-behera, baiña atzeko arbola haundixak (ezkixak edo, emuten daue) aspalditxo ezkutau ziran; **Kafe Zaharreko** etxiak (orain **Pago-Usa** alkartia daguen tokixa) pisu bat gutxiago dako; **Santa Anak**, barriz, monjak alde arte izan eben taixua erakusten dau; kalietan adokiña, jakiña, baiña plazako zorua ezta egun honeittan ipiñi doskuen besteko areiatua.

J.E.

Argazkixa eztagigu norena dan, baiña Parisen argittaratutako postal batian kaleratu zan.

BELAR Irrati-Telebista S.A.

Elektrizitate instalakuntzak**Atezain automatikoak****Elektratresnen salmenta eta konponketa****TB-III-FI**

Olakua kalea, 1-C. Tfnoa: 78 06 57 OÑATI

JON
ARGAZKIGINTZAKale Barria, 28 beheha
Tfnoa: 78 24 81 OÑATI